



**Begoñako Andra Mari**

IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO  
TEACHER TRAINING UNIVERSITY COLLEGE

Uztailaren 11ko 34/2002 Legea betetzeko (Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzkoa), jakinarazten da [www.bam.edu.es](http://www.bam.edu.es) webgunea Begoñako Andra Mari Irakasleen Eskolaren (BAM) jabetzakoa dela, eta erakunde horrek sortu eta mantentzen duela. Unibertsitate Eskola horrek Bilbon du egoitza, Barrainkua kaleko 2. zenbakian, eta haxe da haren IFK: R4800605J

## **DATU PERTSONALEN GAINEKO POLITIKA, ETA DATU HORIEN ERABILERA-BALDINTZEN ONARPENA ERABILTZAILEEN ALDETIK**

1. BAMEk [www.bam.edu.es](http://www.bam.edu.es) webgunearen erabiltzaileei jakinarazten die, orri hori erabiltzean, euskarri fisiko zein elektronikoen ematen diren datu pertsonalen artxibo automatizatuak sortuko direla.
2. Datuen babesari dagokionean, BAMEk indarreko legedian ezarritakoa beteko duela bermatzen du.
3. Unibertsitate elkartearen zerbitzura jarritako bitartekoen bidez eta, bereziki, [www.bam.edu.es](http://www.bam.edu.es) webgunearen bidez BAM Irakasle Eskolari ematen dizkioten datu eta informazioak benetakoak direla bermatuko dute erabiltzaileek. Datu horiek benetakoak ez izatearren, zehaztasun gabekoak izatearren edo indarrean ez egotearren BAMEk eta/edo hirugarren batzuek jasan ditzaketen kalteen arduradun datuak eman dituzten pertsonak izango dira.
4. Erregistratzen diren datuak isilpekoak dira eta BAMen nortasunari loturiko zerbitzuak eskaintzeko baino ez dira erabiliko. BAMen nortasuna: 2014ko abenduaren 3ko Erakundearen Batzarrean onartutako Estatutuen 1. artikulua: *"Eskolaren kristau izaeran oinarrituta, daukan eskumena erabiliz, irakasleen goi mailako prestakuntza eskaintzen du, irakaskuntza, ikerketa eta hezkuntza berrikuntzaren bidez"*
5. Erabiltzaileek emandako datu pertsonalak hirugarren bati eman ahal izango zaizkio goian aipatutako helburuetarako, beti ere Datu Pertsonalen Babeserako indarrean dagoen araudia betez. Baina beharrezkoa denean baimena eskatuko zaie dagokienei.
6. BAMi datu pertsonalak ematean, datu horiek inolako oztoporik gabe tratatzea onartzen dute erabiltzaileek; zalantzarik gabe eta berariaz baimena ematen dute, BAMen helburuen arabera, dagokien tratamendua egiteko, aurreko klausuletan esandakoa kontuan izanik.
7. Erabiltzaileek eskubidea izango dute BAMEk aurretiaz bildu eta artxibatutako datu pertsonalak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko. Horretarako, eta indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera, idatzi bat bidali beharko da BAMera. Bertan, interesdunaren, edo, hala badagokio, ordezkatzeko duen pertsonaren, izen-abizenak eta

**Barrainkua, 2. 48009 Bilbao - T. +34 94 424 22 42 - F. +34 94 424 76 04 - [secretaria@bam.edu.es](mailto:secretaria@bam.edu.es)**

# BAM

**Begoñako Andra Mari**

IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO  
TEACHER TRAINING UNIVERSITY COLLEGE

egiten den eskabidea adieraziko da, eta idatziari identifikazio agiriren baten fotokopia (NAN, pasaportearen edo bestelako agiriren bat) erantsiko zaio, edo baliabide elektronikoko baliokideak erabiliko dira.

8. BAMEk neurri teknikoak eta antolaketa neurriak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, bai eta datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzea saihesteko. Nolanahi ere, gaur egun Interneten dauden segurtasun baldintzak direla eta, BAMEk ezin du bermatu erabiltzaileek emandako informazioaren legez kanpoko erabilerarik ez dela egingo hirugarrenen aldetik. Hortaz, BAMEk ez du bermatuko eta ez du inolako ardurarik hartuko bere gain, edozelako kalterik sortzen bada hirugarrenek datuak aldatu, galdu, tratatu, baimenik gabe eskuratu edo legez kanpo erabiltzen badituzte.
9. [www.bam.edu.es](http://www.bam.edu.es) webgunearen erabilerak honako hau dakar: erabiltzaileak orri hori darabilenean erabat onartzen du INDARREAN DAGOEN LEGEDIA datu pertsonalak sartu, erabili, erregistratu eta babesteari dagokionez.